

EUSKADIKO ESKOLA TXIKIEN SAREA



Ez gara ezeren alternatiba,
kalitatezko hezkuntza
publikoa gara herri txikietan”

Pandemia dela medio, inbidiaz begiratu du askok eskola txikietara, bertako talde txiki, kanpoko espazio zabal eta landa eremuetara. Ikastetxe hauetatik ikasteko daukagunaz eta dituzten erronkez aritu gara Euskadiko Eskola Txikiekin, gidaritzan aldaketa eman dela aitzakia hartuta. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 54 ikastetxe biltzen ditu sareak eta indartsu daude: "Herri txikiak ez dira lo leku, ez dira argazki bat, bizirik dauden eremuak dira eta herriko eskola klabea da horretan".

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Bederatzi urte egin ditu Euskadiko Eskola Txikien koordinazioan Mikel Goñik, eta iritsi zenean ikastetxe batzuek beren burua eskola txikien definizioan baztertuta sentitzen zutelako kontatu digu, batzuek eta besteek ezberdin ulertzen zutelako zer den eskola txikia. Urteotan, denak eroso sentituko diren definizioa lortu dutela uste du, gero eta ikasle gehiagorentzat izango den eskola eta gero eta hobeto ikasteko izango den eskola helburu: "Aniztasuna bultzatzen duen tamaina txikiko eskola publikoa da gurea, landa eremuan kokatua, eta ezaugarri horiei esker aukera ugari ematen dituena. Deskribapen horretan eskola txikien sareko parte diren guztiek beren burua identifikatuta sentitzen dutela esango nuke, eta hori inportantea da. Gero, horren baitan,

bakoitzak bere norabidea markatzen du, dela teknologiaren aldeko apustua eginez, dela anti-teknologiko, dela aniztasunaren ikuspegi zabala ardatz, dela metodologia jakin bat oinarri...".

Koordinazioa utzi duen honetan, eskola txikien sareak aukera berri asko irekitzen dituen faseari ekin diola dio Goñik, ikastetxe ugari txikitzen joango direla iruditzen zaiola, "gurera hurbiltzen", biztanle kopurua jaisten ari dela eta; horrek aukera emango du eskola txikien taldea handitu eta indartzeko. Aurrerantzean, gainera, koordinazioak bat ez hiru buru izango ditu, lan bolumenari erantzuteko, baina baita ere taldea, lidergo partekatua edota elkar babestea ezaugarri inportanteak direlako eskola txikietan. Koordinatzaile zelarrik, Goñi ez zen ikastetxean ikasleekin zu-



Txikia izateak ekarri dezake isolamendu eta ahultasun sententzia, eta inflexio puntu garrantzitsua izan zen elkarrekin biltzen hasi eta talde bihurtzea. Sarea sakontzen eta errotzen jarraitu nahi dugu”



Miren Odriozola,
Irati Manzidor eta
Jugatz Ormaetxea,
Euskadiko Eskola
Txikien koordinazio
talde berriko kideak.

zenez aritu, “eta horrek ez du mesede egiten, orain ikasgeletara bueltatu naitzenezan ikusten ari naizelako eguneroko errealitate eta joerak bestelakoak direla, horregatik koordinazioaren lekukoa hartu duten hiru kideetatik bik eskolan jarraitzea inportantea da, horrek beste sentsibilitate eta oinarri bat emango diolako koordinazio taldeari”.

Irati Manzisidor, Miren Odriozola eta Jugatx Ormaetxea hirukoak ere badaki erronkaz beteriko bidea abiatu dutela. Nabarmendu dute, batetik, sarea indartzea eta elikatzen segitzea dutela zeregin nagusien artean. “Txikia izateak ekarri dezake isolamendu, bakardade eta ahultasun sentsazioa, eta inflexio puntu garrantzitsua izan zen elkarrekin biltzen hasi eta talde bihurtu zirenean, bada sare izaera hori, azken urteetan gero eta gehiago zabaldu duguna (pro-bintzietatik erkidegora), sakontzen eta errotzen jarraitu nahi dugu, eta sarea ez bakarrik irakasleena, hezkuntza komunitate guztiarena baizik, guraso, ikasle eta hezitzaile”.

IKUSPEGI ERROMANTIKOTIK HARAGO

Landa eremua asko aldatzen ari den errealitatea izanik, herri txikien inguruko ikuspegi bukoliko erromantikoa-ekin amaitzea ere badute xede: “Herri txikiak ez dira lo leku, ez dira argazki bat, bizirik dauden eremuak dira, etorkizuna erabakitzen ari direnak; komunitate kohesionatua eta bizia duten herrietan sinesten dugu eta bide horretan klabea da eskola, herriari begiratuko dion eskola berreraikitzea”.

Eta hirugarren erronka bat: ikastetxeetatik ez urruntzea, eskola bakoitza mundu bat dela jakitun. Bakoitzaren helburu eta borroketan bidelagun izan nahi du koordinazio taldeak, heldulekua. Gainera, administrazioa alde dutela diote, entzuteko prestutasunez ikusten dituztela, eta hori beti da lagungarria.

ESKOLA TXIKIAK, ESKOLA ASKEGOAK?

Ikasle kopuru murrizta, adin aniztasuna eta landa eremua dira eskola txikiak aipatu eta burura datozkigun hiru ezaugarri. Ardatz horien arabera diseinatzen dute eskola txikiak jarduteko modua, “baina hiru ezaugarriak ere oso aldakorrek dira, ez da gauza bera duela urte batzuk eta orain ezaugarri horien bueltan ulertzen dena, eta ez dira ber-



Mikel Goñi, orain arteko koordinatzailea.

M. GONIK UTZIA

dinak eskola batean eta bestean dauden errealitateak”, zehaztu digute.

Guk beste ezaugarri bat mahaigaineratu dugu, kanpotik begiratuta egon daitekeen sentsazio bat: sistema publikoaren baitan dauden arren, ez al dute eskola txikiak askatasun handiagoz jo-

lasaitasuna ematen digulako zenbait erabaki hartzeko, baita erabakiak azkar hartzeko gaitasuna ere, kanpora ateratzea errazten du... Antolatze orduan talde txikia abantaila da eta normala da jendeak askatasun eta malgutasun handiagoa dugula ikustea, baina horrekin ez da ulertu behar ezeren alternatiba garenik, gu gara kalitatezko hezkuntza publikoaren eskaintza herri txikietan, eta hori da bilatzen duguna”.

ETA PANDEMIAN?

Konfinamendua eta pandemia denontzat izan da gogorra, baina txikitasun eta malgutasun horrek ere lagundu du garaiotan, besteak beste talde txikiakin aritzeko eta kanpora aiseago ateratzeko. Koronabirusaren aurretik jada lau paretetatik haragoko ikastetxeak ziren eskola txikiak, beti jo dute herriko frontoi, plaza eta landa eremura ikastorduetan, baina batetik kontzientzia handiagoa hartu dute horrek duen balioaz, eta bestetik salto kualitatiboa eman dute, ikuspegi curricularretik zentzuz eta edukiz bete dute kanpora irtete horretan zer, nola eta zertarako egin.

Zalantza barik, berezitasun propioak ditu eskola txikiak, eta irakasleak bategik bestera dantzan izan ohi dituen gure hezkuntza sistema publikoan, ikastetxe hauetako batera iristen den irakaslea ongi egokitzen al den jakin nahi izan dugu. Solaskideek kontatu digutenez,

Koronabirusaren aurretik jada lau paretetatik haragoko ikastetxeak ziren eskola txikiak. Orain, ikuspegi curricularretik zentzuz eta edukiz bete dute kanpora irtetea

katzeko aukera? Eskola publiko guztiek –eta diru publikoa jasotzen duten kontzertatuek– duten askatasun bera dutela erantzun digute, “baina egia da administrazioaren zurruntasun horretan hobeto eta errazago mugitu gaitzkeela, gutxi garelako eta gutxi izate horrek



“

Askatasun handiagoa? Egia da administrazioaren zurruntasun horretan hobeto eta errazago mugitu gaitzkeela, gutxi garelako eta gutxi izateak lasaitasuna ematen digulako zenbait erabaki hartzeko”

adin aniztasunarekin eta ikuspegi metodologiko jakinekin aritzean, batzuen erreakzioa izaten da zalantzan jartzeko ordura arte beste eskoletan egin dutena. Lehenago-beranduago, moldatzen dira irakasleak, eta horretarako gakoa da eskola txikietan aspalditik irakasle ailegatu berriei ematen zaien formazioa, kokatzen laguntzeko. “Aldi berean, gure txikitasunean, etortzen denari laguntzeko aukerak handiagoak dira eta beti dago tartea elkarrekin hitz egiteko eta sortzen diren beldur eta zalantzez aritzeko. Ikaslearen zaintza egiten den moduan, irakasle eta familia ere dugu kontuan, eskolako komunitateko parte direla sentiarazi nahi ditugu

lehen unetik”. Eskola txikiek duten irakasleen egonkortasun tasa altua seinale ona dela diote solaskideek, bereziki Gipuzkoan, non eskola batzuetan 10 irakasletik 9 diren egonkorak.

ZER IKASI DEZAKEGU ESKOLA TXIKIETATIK?

Zer irakats diezaiekete eskola txikiek ikastetxe ertain eta handiei? Ikastetxe bakoitzari ongi datorkionak ez duela zertan beste ikastetxe batean funtzionatu argitu digute solaskideek, baina egia dela gogoeta asko egin dutela hainbat gairen inguruan, ikuspegi filosofiko eta pedagogikoak oso landuta dituztela, eta ildo horretan ekarpena egin de-

zaketela, ikasle bakoitzaren prozesua errespetatzeaz, espazioez, aniztasunaren kudeaketa eta balioaz, herriarekin eta familiekin dituzten hartu-emanez... “Bidean ikasi dugun guztia erabilgarria izan daiteke beste batzuentzat, bakoitzak bere ikastetxeko errealitatera moldatuta”.

Azken finean, praktika onak eskola guztietan daudela diote, eta eskola ahaldunduta sentitzen bada eta bere buruan sinesten badu, errazago antzemango dituela praktika on horiek, errazago jarriko dituela martxan eta partekatuko dituela gainerakoekin. “Gurea partekatzeko prest gauden bezala, gertu gaude besteengandik ikasteko”. ●



HEMEN DAGO
NAFARROA

